

SEGURTASUN KAMERA HEGALARI KAMUFLATUA

9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Zalantzarik gabe, gure enpresan guztietan bezala, hainbat funtsezko jarduerak beteko dira, balio-proposameneko gure eskaintza garatzeko, gure bezero potentzialak lortzeko haiekin eraginkortasunez erlazionatu ahal izateko eta diru-sarrerak lortzeko.

Horrela banatzen dira funtsezko jarduerak:

Produkzioa: Ekoizpena, lehengaiak produktu bihurtzeko eraldaketaz arduratzen den jarduera ekonomikoa da. enpresan, produktua sortzeko lehengaiak zuzenean beste enpresa batzuetatik eskuratuko da, eta, beraz, azken zatiaz baino ez gara arduratuko, hau da, kamara bera dronarekin lotzean oinarrituko da, eta horrela gure Venus Security segurtasun kamerak sortuko ditugu. Segurtasun kamarak muntatzeko, langile plantilla bat izango dugu, soilik kamara eta drona produktu bakar batean bihurtzeko helburuarekin.

Arazoak konpontzea: Arazoak konpontzeko jarduerak taldeak nola funtzionatzen duen ezagutzeko modu bikaina dira, eta proiektuaren helburuak lortzeko bidean sortzen diren oztopoei azkar erantzuten lagungarriak diren estrategiak ikasteko.

Gure enpresan bereziki kontuan hartuko dira jarduera horiek, garrantzitsua baita arazo batetik irteten jakitea, batez ere enpresa-buruen artean. Horretarako, lehenik arazoa identifikatzeaz arduratuko gara. Enpresa batean zerbait gaizki joaten hasten denean (diru-sarrerak edo bezeroak galtzea, adibidez), garrantzitsua da horren eragilea zein den jakitea; bestela, oso zaila izango da berriro egonkortzea. Ondoren, denon artean konponbiderako estrategia bat aztertuko dugu, eta arazoarekin ohitutzen saiatuko gara, egoerari modu eraginkorragoan aurre egin ahal izateko. Azkenik, pentsatutako estrategia batzuk entseatuko ditugu, arazoa konpontzeko behar bezain eraginkorrak diren egiaztatzeko.

Plataformako edo Sareko jarduerak: Gaur egun daukagun teknologia aurreratu aprobeztatuz, droneek Bluetooth dispositore bat eramango dute. Dispositore honen bidez, bezeroek dronak modu eroso eta azkar batean kontrolatzeko ahalmena izango dute.